

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Egungo Haur eta Gazte Literatura generoaren ikuspegitik

EGILEA: NEIRA ECHANIZ, JAGOBA.

ZUZENDARIA: ETXANIZ, XABIER.

2019/2020

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Egungo Haur eta Gazte Literatura generoaren ikuspegitik

Jagoba Neira Echaniz

UPV/EHU

Denboraren iluntasunean galtzen dira historiako lehenengo ipuin zaharrak. Baina badakigu hauek ahoz aho kontatuak izan direla, eta balioen garrantziaz baliatu direla. Hala ere, urtez urte, gizartearen garapenaren ondorioz, balioak aldatu izan dira. Horren ondorioz, ipuinek ere moldaketak jasan behar izan dituzte. Dударik ez dago, aldaketa horietako bat emakumeak berdintasunaren eremuan azken hamarkadetan emandako aurrerapauso handiak izan direla, eta horiekin batera, gobernuek eta komunikabideek euren diskurtso patriarkala aldatu behar izan dutela. Gradu Amaierako Lan hau, gizarteak aldarazi nahi duen genero ikuspegia ipuinetan islarik izan duen aztertzeraz dator. Ondorioz, gaur egun eskoletan erabiltzen den Haur eta Gazte Literatura genero berdintasunaren ikuspuntutik aztertuko da.

HITZ GAKOAK: *Haur eta Gazte literatura; balioak, generoa, berdintasuna*

En la oscuridad del tiempo se pierden los primeros cuentos de la historia. Pero sabemos que estos han sido contados de boca en boca y que se han convertido en transporte de valores. Sin embargo, a causa de la evolución de la sociedad, año tras año esos valores han ido cambiando. Es por ello, que los cuentos han sufrido numerosas reescrituras. No cabe duda, de que uno de esos cambios ha venido dado por los progresos obtenidos en las últimas décadas en el ámbito de la igualdad de la mujer, que ha obligado tanto a los gobiernos como a los medios de comunicación a cambiar su discurso patriarcal. Este Trabajo de Fin de Grado viene a analizar si los cuentos son el reflejo de esa sociedad que lucha por cambiar la perspectiva de género. Por lo tanto, se analizará la literatura Infantil y Juvenil utilizada en los colegios hoy en día desde el punto de vista de la igualdad de género.

PALABRAS CLAVE: *Literatura Infantil y Juvenil; valores; género; igualdad*

In the darkness of time the first stories of history are lost. But we know that these have been told by word of mouth and that they have become a transport of values. However, due to the evolution of society, these values have changed year after year. That is why stories have undergone numerous rewrites. There is no doubt that one of these changes has been given by the progress made in recent decades in the field of women's equality, which has forced both governments and the media to change their patriarchal discourse. This Final Degree Project comes to analyze whether stories are the reflection of that society that struggles to change the gender perspective. Therefore, the Children and Youth literature used in schools today from the point of view of gender equality will be analyzed.

KEYWORDS: *Children and Youth Literature, values, gender, equality*

AURKIBIDEA

| | |
|---|----|
| 1. Sarrera | 4 |
| 2. Marko teorikoa | 7 |
| 2.1. Gizarte-balioak ipuinetan..... | 7 |
| 2.2. Generoa eta ipuinak..... | 8 |
| 2.3. Hezkidetzaz | 10 |
| 3. Lanaren garapena | 12 |
| 3.1. Lanaren garrantzia | 12 |
| 3.2. Helburuak | 13 |
| 3.3. Hipotesiak | 14 |
| 3.4. Corpusa | 15 |
| 3.5. Tresnak | 18 |
| 3.6. Metodoa..... | 21 |
| 4. Emaitzak | 22 |
| 5. Ondorioak | 31 |
| 6. Erreferentzia bibliografikoak | 37 |
| Eranskinak | 39 |

1. SARRERA

“*Lokatzetan uzten dira oinatzak*” errepikatzen zuen behin eta berriro meategiko langile zahar batek. Arrazoa bere alde zuela ez dago dudarik, baina esaera horretan hitz batek hartzen du indarrik handiena: *oinatzak*. Leku eta gauza askotan utz daiteke aztarna, baina gure baitan ere, iraganeko arrastoak presente daudelako askotan.

Horregatik, behin eta berriz haurtzarora jo izan ohi dute psikologoek, gure motxilan zer daramagun ondo aztertzeko, bidean izan ditugun lagunak zer nolako oinatzak utzi dizkiguten arakatzeko.

Haurrak garenean, gure heziketa prozesuan ditugun lagunak askotarikoak dira: familia, eskola, gizartea eta abar. Partaide horietako bakoitzak ume horrek izango dituen lorratzen arduradunetako bat izango da, nahiz eta hauek (agian) ez diren behin betikoak izango. Izan ere, Neurohezkuntzak garunaren plastikotasuna aldarrikatzen du. Zientzian garuna “egitura plastikotzat” hartzen hasi denetik, argi geratu da garuna malgua dela (nahiz eta zaharra izan), eta horrek etengabeko ikaskuntza prozesua dakarrela. Horretaz gain, soziala eta emozionala ere bada (Mora, 2013).

Garuna soziala da, besteekin elkarreraginean ikasten dugulako (*bikoteka irakurtzen*, esaterako). Baina garuna emozionala ere bada, ingurune positibo batek ikaskuntza errazten duelako. Egoera sozialetan eroso sentitzea, gertatzen dena ulertzea, eta aldi berean, adierazten jakitea oso garrantzitsua da ikasketa prozesurako.

Hortaz, aztarnek itxuraz ere alda dezakete, eta aldi berean, irakaspenak egokitu. Ez da atzoko kontua, irakaspen eta balio horietako asko hurrek ipuinetatik jasotzen dituztela (helduek hitzez azaldu ezin dezaketelako akaso). Baina kontuan hartu behar da, ipuin horiek hurrengan utziko dituzten arrastoak urteetan zehar iraungo dutela. Horregatik, gure txikiei liburu bat esku artera luzatu aurretik, ipuinen erabileraz hausnartzea ezinbesteko prozesua izan beharko litzateke.

Horrenbestez, honako galdera datorkit burura: gaur egun, hurrek zein motatako liburuak irakurtzen dituzte eskoletan? Jakina denez, umeek eskuratzen dituzten balioak urtez urte, eta hamarkadaz hamarkada aldatuz doaz. Gizarteak jasaten dituen aldaketak eta garapenak hezkuntza sisteman ere islatzen direlako. Beraz, duela urte batzuk gizarteak bultzatutako balioetako batzuk, ikuspegi aldaketaren ondorioz, desagertu edo aldatu dira. Baina, egitura zaharretan hezitako umeek -orain helduak

direnak-, irakaspen edota ikuspegi berriak barnera ditzakete (gogoratu lehen azaldutako burmuinaren malgutasuna).

Egia da aldaketa horiek ez direla egun batetik bestera gauzatzen, deboraz hartu beharreko lana baita. Horregatik, eta aurretik egindako galdera berreskuratuz, jakin mina sorrarazten dit, ea aurreko urteetako lanaren ondorioz ez ote den aurrerakuntzarik egin, **genero berdintasunaren** inguruan. Izan ere, azken hamarkadan elkarte eta instituzioek kanpaina ugari kaleratu dituzte gai honi irtenbidea bilatzeko, eta horien eragina, ondorioak izan dituen jakiteak, garapenaren seinale izan daiteke, hots: haurrek eskoletan irakurtzen dituzten liburuak, genero berdintasuna eta hezkidetzaren ikuspegitik aproposak al dira? Mikromatxismorik gabe, sexismo gabe, estereotipo eta aurreiritzik gabe...

Badirudi genero berdintasun baterako ideologian gizarteak aurrera egin duela. Emakumea lan mundura gizarteratu delako agian (nahiz eta egun, eremu patriarkala izaten jarraitzen duen). Aldiz, praktikan oraindik diskurtsoa patriarkala izaten jarraitzen du askotan. Oraindik ere sexuen arteko ezberdintasun ugari ikusten ditugu gure gizartean eta hainbat esparrutan nabarmen azaleratzen da: eskola liburuetan, literaturan, kazetaritzan... Hala ere, ezin da ukatu, eskubideen parekidetasunari dagokionez, emakumeek azkeneko urteetan lortu dituzten aurrerapenak. Hori dela eta, eskoletan ere, eredu asko aldatu dira, eta haurrak gero eta era parekideagoan hezten ari dira.

Baina txikiek, eskolaz gain, estimulu gehiago jasotzen dituzte, eta kontuan hartzekoa da, teknologiarekin ematen dituzten orduak. Komunikabide zein teknologiak kokatzen dira parekidetasunaren alde egitea laguntzen ez duten faktoreen artean. Izan ere, komunikabideak gure heziketaren parte ere badira, eta hauek tematu izan dira emakume eta gizonak behin eta berriro ezberdintzen. Lehen esan bezala, emakumearen eginkizuna historian zehar asko aldatu da, etxean egon behar izatetik (gizonen esanetara), fisikoki perfektua den emakumea izatera igaro da, berriro ere, gizonen onurarako. Honen adibide dira, esaterako, telebistan agertzen diren, eta emakumeek espresuki jarraitu behar dituzten modeloak (neurria, janzkera, jokabidea eta estiloa beste gauza askoren artean zehazten dituztenak).

Emakumearen irudia, tamalez, betidanik oso estereotipatua agertu da gure egunerokotasunean, eta zoritxarrez, horrela jarraitzen du izaten eremu askotan. Kontu hau pedagogikoki, eta gure haurren ipuinetan espresuki, ikastetxeko gela batean irakurketa bat ekiteko orduan arazotsua izan liteke. Bizi garen egunerokotasunean,

sexismo-egoerak eta matxismoa detektagarriak izatera hel daitezke, baina gauzak guztiz aldatzen dira literaturan irudikatutakoaren kasuez hitz egiten badugu.

Hori da, hain zuzen ere, lan hau aurrera eramateko arrazoiatariko bat, hezkidetzako balioaren transmisioa gazte-literaturaren bitartez duen garrantzia nolabait ikusgai bihurtzea. Gaur egun, eskoletan erabiltzen diren ipuinetan generoaren ikuspegia zein den azalera: gaur egun eskoletan erabiltzen diren ipuinek bat egiten dute gizarteak genero berdintasunaren inguruan duen ikuspegiarekin?

Esku artean duzun lanaren gaia, beraz, hurrengoa da: **“Gaur egun eskoletan irakurtzen den haur eta gazte literatura generoaren ikuspegitik”**. Modu honetan, Gradu Amaierako Lan hau lau zatitan banatuta egongo da; irakurtzen ari zaren hau (sarrera), lehenengo zatia izanik. Honi jarraitzen dion marko teorikoa, non gai honen inguruan orain arte idatzi diren teoria desberdinen bilakaera aztertuko den. Ondoren, proiektuaren ikerketa metodoa azalduko da: helburua, hipotesiak eta corpusa. Azkenik, ikertutakoaren emaitzak azaldu eta ondorioak aterako dira.

2. MARKO TEORIKOA

2.1. Gizarte-balioak eta ipuinak

Hasierako garaietatik gaurdaino, Haur eta Gazte literaturak bilakaera luzea izan du. Izan ere, ezinbesteko bitartekari bihurtu da balioen transmisioan, eta horregatik, garaiko eta tokiko testuinguruetara egokitu behar izan da.

Ipuinek igorritako balio hauek eskuratzea umearen garapenean funtsezkoa suertatzen da, etorkizunean heldua izango de haur hori *gizarteratu* ahal izateko; kontuan hartu behar baitugu ez dela banakotasunean biziko. Aristotelesek (k.a. 350) berak adierazi zuen bezala, pertsonak ez gara gizabanako hutsak, osotasunaren zati bat baizik:

(...) el individuo aislado no es autosuficiente, y por eso es como una parte en relación al todo. Pero el hombre que no es capaz de vivir en sociedad, o que no tiene necesidad, porque se basta a sí mismo, tiene que ser una bestia o un dios. Ese hombre no es parte de un estado. En todos los hombres ha sido implantado un instinto social por naturaleza. (Educacantabrian.es-en aipatuta, s.f.)

Halaber, Teoria Soziokulturalaren arabera (Vygotsky, 1978), umearen ikaskuntzaren garapena elkarreraginaren bidez lortzen da. Horrek esan nahi du, pertsona orok testuinguru soziokultural jakin batean eraikitzen duela bere identitatea. Hortaz, belaunaldi berrien artean sustatutako balioak bat etorri beharko dute gizarteratuko den herrian dagoen kulturarekin. Aldi berean, kultura hori bertako eta garaiko testuinguru soziokultural eta historikoaren isla izango da (Morin, 2000: 26): «La cultura acumula en sí lo que se conserva, transmite, aprende; ella comporta normas y principios de adquisición (...)»

Modu horretan, umeak bere kultura partekatzen duten pertsonengan bilatzen ditu ereduak. Baina eredu horiek forma askotarikoak izan daitezke. Dударik gabe, ipuinak eredu horien artean topa ditzakegu. Horregatik, umeek irakurtzen dituzten ipuinen balioak, garaiazen arabera moldaketak jasan dituzte.

Denbora pasa ahala, beldurrezkoak ziruditen ipuin batzuk leundu izan dira. *Txanogorritxoren* ipuinearen hasierako bertsioek, esaterako. Ipuin hau, “*La Finta Nonna*” (XIV. mendekoa) istorioan oinarrituta dago. Bertsio honetan, otsoa garaile suertatzen da eta harekin batera amonaren gorpua jatera gonbidatzen du

Txanogorritxo. Adibide honek argi uzten du momentu kultural desberdinen arabera, ipuinek berridazketak jasaten dituztela *politikoki zuzenak* izateko eta gizartearen markoarekin bat etortzeko.

Baina aldaketa horiek eman bitartean, belaunaldi berriak trantsizioan egongo dira, balio tradizionalen eta berrien arteko talka bete-betean biziz. Momentu horretan, “balioen krisia” gertatzen da. D. Camacho-k (2007:9) horrela azaltzen du krisiaren esanahia:

(...) crisis significa el momento culminante del cambio de una situación a otra
(...) el concepto o categoría de crisis no necesariamente es negativa (...) De acuerdo con ello, al referirnos en nuestro título a la expresión “crisis de valores” lo hacemos sin prejuicio alguno respecto de si esa crisis es para bien o para mal.

D. Camacho-k adierazten du, mendebaldeko gizartea aldaketan dagoela uneoro, balioei dagokienez ere eta mugimendu indartsuek aldaketak eragiten dituztela. Izan ere, gizartearen garapena dela eta, balio batzuk desagertzeaz egongo dira, eta normalean, hutsune hori betetzera datozen beste balio berri batzuk sortzen dira. Balio tradizionalak aldatzera datozen mugimenduen artean feminismoa dugu, balio patriarkala aldatzera datorren mugimendua, alegia.

2.2. Generoa eta ipuinak

XX. mendeko bigarren erdian *genero* kontzeptua lehen aldiz aipatu zuten autoreen artean dugu Jonh Money (1955) psikologoa; *genero* hitza proposatu baitzuen pertsonen identitate maskulino zein femeninoekin uztartzen ziren jarrerak izendatzeko. Geroago, Rober Stoller-ek (1963) sexu eta generoaren arteko bereizketa egin zuen, gizon baten gorputzarekin jaio baina emakume sentitzen ziren pertsonak identifikatzeko.

Hainbat proposamenen ondoren, gaur egun *genero* hitza, sexuaren arabera gizarteak esleitutako ezaugarri multzoari erreferentzia egiteko erabiltzen da. Gauzak horrela, Munduko Osasun Erakundeak (2002:1) modu honetan bereizi zituen bi terminoak:

El término género se utiliza para describir las características de hombres y mujeres que están basadas en factores sociales, mientras que sexo se refiere a

las características que vienen determinadas biológicamente. Las personas nacen con sexo masculino o femenino, pero aprenden a ser niños y niñas que se convierten en hombres y mujeres.

Honen arabera, pertsonak bi taldetara mugatuko dira -gizona edota emakumea-; eta horietako bakoitzak gizarteratzeko forma bakarra izango du, hau da, soziokulturalki ezarritako rol zein estereotipoen bidez -femeninoak edo maskulinoak-. Modu honetan, emakumeari ezaugarri konkretu batzuk suposatuko zaizkio (ahula, atsegina, zerbitzaria eta polita izatea, esaterako) eta gizonari kontrakoak (indartsuak, zakarrak, langileak, esaterako).

Horrenbestez, umeez jaiotzetik inguratzen dieten kulturarengatik ikasiko dute bere identitatea osatzen. Familiak, eskolak, komunikabideek, zeresan handia izango dute lan horretan, izan ere, eragin zuzena izango dute generoen estereotipoen ezarpenetan. Ipuinak, gizartearen kulturaren bozgorailua direnez, bertako pertsonaiengan genero estereotipoak ere ikus ditzakegu. Ume txiki bat ipuinak irakurtzen dituen bitartean ikasten ari da eta literaturan agertuko diren estereotipo horiek xurgatu eta barneratuko ditu.

Baina estereotipo horiei aurre egiteko, feminismo kulturaletik abiatuta, *genero ikuspegia* sortu da. Ikuspegi honek, generoaren aniztasuna onartzen du, gizon eta emakumeen existentzia gizateri anitz eta demokratikoaren printzipio gisa. Generoaren izendatzeak zapalkuntza agerian jartzen du, zeinak demokrazia eragozten duen (Lagarde, M., 2018). Genero ikuspegiari esker, gizon eta emakumeak zehazten dituzten ezaugarriak aztertzekeo parada ematen digu, eta baita desberdintasunak zein antzekotasunak ere.

Honi esker, ipuinak genero ikuspegitik aztertzekeo aukera eskaini da eta lan horretan aurrerapen nabarmenak egin dira azken urteetan. Esther Ros Garcíak argitaratutako *El cuento infantil como herramienta socializadora de género* (2013) artikuluan, haurren ipuinetan genero-estereotipoen transmisioa aztertu zuen. Bertan corpus zehatz batetik abiatuta ondorengo hau ondorioztatu zuen:

Los roles más significativos en las mujeres están relacionados con el rol de cuidado (reproducción) y, por extensión, con todas aquellas cualidades ligadas al mismo como es la solidaridad, la dulzura, ternura, paciencia y conservación y protección. Para los hombres los roles más significativos están relacionados con el dominio, agresividad, fortaleza, rudeza e insensibilidad, pero también

con aspectos de tipo laboral como el individualismo, liderazgo, la competitividad, la autonomía, la producción, la resolución, el atrevimiento y la arrogancia. (345 or.)

Horretaz gain, ipuinetako irudiak ere aztertu zituen, non egunkaria da gizonezkoei lotutako objektu esanguratsu bakarra, eta emakumezkoetan, amantala den adierazgarriena.

Norabide berean, Eneko Fernandez Artigasek (2017) bere doktore tesian, emakumearen irudia euskal haur literatura modernoan aztertu zuen, 1980ko hamarkadako eta gaur egungo egoera konparatuz. Helburua, euskal literatura modernoan gizon zein emakumeen bilakaera aztertzea zen, hauetan loratzen zen sexismoa identifikatzeko.

Aurkeztutako corpusetik (1980ko hamarkadako liburuak; 2013. urtean argitaratutako 55 euskal liburu; eta azkenik, 2009. eta 2014. urteen artean saridunak izandakoak) hurrengo ondorioa azaleratu zen:

Emakumeen presentzia gero eta ugariagoa eta ondorioz anitzagoa da (...), euskal haur eta gazte literatura modernoan gero eta sexismo gutxiago detektatu den arren, oraindik ere sexismoa nabaritzen da edertasunaren eta indarraren presentzian, aberastasunaren banaketan, amantalaren erabileran, ospearen presentzian (...) (358 or.)

Ikerketa hauek agerian uzten dute oraindik ere umeei irakurtzen zaizkien ipuinetan sexismoa dagoela. Horregatik, gai honen inguruko jarraipena egitea garrantzitsua da, eta baita, gizartean *generoaren ikuspegia* barnerratzen den bitartean ipuinek ere bide hori jarraitzen dutela begiztatzea.

2.3. Hezkidetz

Historian zehar emakumeek paper desberdina jokatu dute irakaskuntzaren esparruan. Herri batetik bestera ere, hauen presentzia nabarmen alda daiteke. Garai batean ere debekatu izan zitzairen ikastea, baina gaur egun borratutako iraultza txikiei esker, emakumea hezkuntzaren arloan beste testuinguru batean dago, eta egun, arazoa ez

da hezkuntza sistemara iritsi ahal izatea, baizik eta sistema horretan duten lekua eta egoera (Euskal Herriko Bilgune Feminista, 2018:8):

(...) hautatzen dituzten titulazioak eta ezagutza arloak, beren ibilbide akademikoak eta profesionalak, botere guneetan duten statusa, irakasten diren edukiak, erabiltzen diren metodologiak, baliabide didaktikoak, ebaluazio irizpideak eta tresnak, onartzen diren arautegiak eta aurrekontuak, azken finean, hezkuntza jardueretan oharkabean geratzen den sexu bereizkeriak emakumeen auto-kontzeptuan eta lorpen itxaropenetan eragiten dituen ondorioak.

Auto-kontzeptua eta lorpen itxaropen horiek dira, hain zuzen ere, ikasleei txikiak direnean irakas-materialetatik muintaratu zaiena. Emakundek *Testu-liburuaren bidez zabaltzen al ditugu sexu-baloreak?* (1992) lanaren bidez erakutsi zuen, irakaskuntza mailan erabilitako irakur-liburuaren artean emakumeek esparru askotan hartzen zuten leku eskasa. Ikerketa horretan, pertsonaia femenino, maskulino eta mugagabeetan banatuz, horrelako datuak jaso ziren pertsonaien presentziari dagokionez: «Aztertu diren 1.558 pertsonailetatik, 411, %26,38 femeninoak dira, 940, %60,33 maskulinoak eta 207, %13,29 jenero mugagabekoak.» (6. or.)

Pertsonaien protagonismoari dagokionez, %60,4 maskulinoak ziren; %25,8, aldiz, femeninoak. Gainera erabilitako datuak aztertuta ondorengo ondorioztatu zuten: «Gutziz esanguratsua da gainera ikustea nola doan jaitsiz protagonismo femeninoa hasiera ziklotik 2. etapara, mailaz igon ahala.» (7. or.)

Horretaz gain, pertsonaien espazioa, aisi eta jolas ekintzak, lan-ekintza, etxe-ekintzak eta senidetasun-harremanak aztertu zituzten. Horietan ondoriozta zitekeen nahiz eta curriculum neska eta mutil guztientzat berdina izan, irakur-liburuak sexistak izaten jarraitzen zutela, lan-ekintzan alde handia topatu zelarik. Izan ere, neskei eskainitako lanak mugatuago agertzeaz gain, desiragarriak ez diren lanbideak eskaintzen zitzaizkien, bai ekonomiari eta baita gizarte mailari dagokionez.

Liburu horietatik, ikasleek portaerazko jarraibideak jasotzen dituzte, eta ondorioz, jokabide ereduak barneratzen dituzte (Moreno, 1993:24):

A la hora del recreo los niños juegan con los niños y las niñas con las niñas. En el juego libre es cuando se ejercitan espontáneamente, los modelos aprendidos de conducta, es cuando aparece la fantasía con la que cada individuo se

identifica. Pero, curiosamente, en estos momentos de “libertad” es cuando cada individuo se halla más fuertemente coartado por las pautas establecidas, como si tuvieran “plena libertad” para identificarse con los arquetipos que les están destinados en función de su sexo, pero no para transgredirlos.

Horregatik garrantzitsua da erabakitzea, eraiki nahi den hezkuntza sistema horrek izango dituen oinarriak. Generoaren ikuspegitik, hezkidetza landu beharra defendatu izan da. Izan ere, hezkidetza generotik at egiten den pertsonen hezkuntza litzateke (Euskal Herriko Bilgune Feminista, 2018:9): «Hezkidetza kontzientea den prozesu hezitzailea da eta neska eta mutilen arteko aukera berdintasunean oinarritzen da. Pertsonen garapen integrala lortu nahi du.»

Hezkidetzak gizarte parekiderako bidea egiten duen bitartean, oraindik ere, ipuin askotan emakumeen itzaropena kaltetzen duen ereduak islatzen dituzte. Aurretik esan bezala, balioek gizartearekin batera aurrera egiten dute, baina aurrerapauso horiek esparru guztietara heldu behar du, baita irakaskuntzara ere. Oraingo eskolak eta literaturak gizarte parekidearen alde saltoa ematen ari diren ala ez aztertzeraz dator ondoren aurkezten de ikerketa.

3. LANAREN GARAPENA

3.1. Lanaren garrantzia

Lan hau garatzeko eragileak askotarikoak eta mota desberdinekoak izan dira. Motibazio horien artean, irakurketak haurren ikasketa prozesuan duten garrantzia izan da. Ezbairik gabe, haurrek idazten ikasten dutenean irakurketa izan ohi dute euskarri nagusia; hori dela eta, umearen garapen horretan umei eskaintzen zaizkien liburuak zehaztasunez aukeratu beharko liratekeela suposatzen da.

Lehen begiratuan, badirudi inork ez lukeela ipuin baten irakurketa zalantzan ipiniko. Baina istorio horiek arretaz irakurriz gero, gauzak bestelakoak izan daitezke. Hona hemen Xabier Etxaniz-ek (1996: 20) honen inguruan hausnartutakoa: «Gainera, haur eta gazte literaturan bada oinarririk gabeko uste bat, haur liburua haurrentzat denez, guztiz inuzentea, neutroa, dela. Idazle, kritiko, guraso eta gainerako guztiek ideologia

neutrala dutela, eta hori, arestian aipatu bezala, gezurra da, ezin baikara apolitikoak izan.»

Beraz, garrantzitsua da umeen zaintza duten helduengana heltzea, dela gurasoengana edota irakasleengana, eta horiei erakustea gai honek hartu beharreko garrantzia.

Lan honek ipuinen neutraltasun eza azpimarratzeaz gain, helduak izango diren ume horiengan islatzen diren estereotipo sexistak azpimarratzen ditu eta nolabait, gizarteak generoaren ikuspegitik markatutako errepidean bidegurutzeak daudela erakutsi.

Baina guztien artean, lan honek eragin duen irizpiderik nagusiena zera da: datu hauek, beste ikasle, irakasle zein ikerlarien artean argitaratutako lanei sendotasuna ematea. Izan ere, ikerketa txiki batek ikerketa sakon bat ere osa dezakeelako. Guzti hau, guztion artean literaturak generoaren ikuspuntutik behar lukeen ikuspegia har dezan, eta azken finean, berdintasunezko gizarte batean bizi gaitezen.

3.2. Helburuak

Horrenbestez, eta aurreko orrialdetan emandako informazioa kontuan harturik, Gradu Amairako Lan honen xedea, gaur egungo eskoletan irakurtzen diren Haur eta Gazte Literatura generoaren ikuspegitik aztertzea da; betiere gizarteak arlo honetan jasandako bilakaera, eta bilakaera hori lortzeko egindako kanpainak aintzat harturik. Guzti honekin, ipuinek gizartearekin bat aurrera egiten duten egiaztatu nahi da.

Horretarako, gaur egungo eskoletan erabiltzen diren liburuetan emakume eta gizonei uztartzen zaien genero erreparatuko zaio -maskulino zein femeninoari-, eta baita genero hauek pertsonaiengan sortzen dituzten erduei ere. Horretarako, ondorengo helburuak zehaztu dira.

Helburu nagusia:

- Gaur egun, eskoletan erabiltzen den Haur eta Gazte literatura *genero ikuspegitik* aztertzea.

Bestelako helburuak:

1. Gaur egun, eskoletan erabiltzen den Haur eta Gazte literaturan, emakumeen irudi protagonista gora egin duen ala ez zehaztea.
2. Gaur egun, eskoletan erabiltzen den Haur eta Gazte literaturan, pertsonaia protagonista horiengan antzematen diren ezaugarri sexistak identifikatzea.
3. Gaur egun, eskoletan erabiltzen den Haur eta Gazte literaturan, pertsonaiengan jasotzen diren berrikuntzak aztertzea.
4. Gaur egun, eskoletan erabiltzen den Haur eta Gazte literaturan, rolen banaketa (etxeko zaintza eta lanbideei dagokionez) parekidea den egiaztatzea.

3.3. Hipotesiak

Ikerketa honen lehenengo helburua pertsonaien presentziaz ari da, hau da, ea emakume protagonisten presentzia gaur egungo eskoletan erabiltzen diren liburuetan areagotu den, horretarako hipotesi hau erabiliko da.

1. Gaur egun eskoletan erabiltzen den Haur eta Gazte literaturan, emakumeen irudi protagonistaren areagotzea islatzen da; gizonen irudi protagonistarekin parekatzera heldu arte.

Bigarren helburua, emakume protagonista horiengan ezaugarri sexistak antzematen diren aztertzea da. Horretarako, hipotesi nagusi bat eta hiru azpi-hipotesi planteatu dira.

2. Haur eta Gazte literaturan emakumeen irudi protagonista areagotu den arren, pertsonaia horietan sexismo kutsu bat existitzen da oraindik:
 - 2.1. Gaur egun eskoletan irakurtzen diren liburuetan *ezaugarri fisikoekin* lotzen diren deskribapen sexisten ikuspuntua jarraitzen da ematen.
 - 2.2. Gaur egun eskoletan irakurtzen diren liburuetan, *ezaugarri psikologikoen* deskribapenetan hain zuzen, ezaugarri sexisten presentzia jarraitzen da ematen.
 - 2.3. Gaitasun/trebetasunen deskribapenak ematen direnean ezberdintasunak jarraituko dira nesken eta mutilen arteko abilezian banatzerakoan.

Era berean, hirugarren helburura heltzeko, aurreko hipotesietara joko dugu, ezezkoak suertatzekotan, pertsonaiak jasan dituzten berrikuntzak nabarmentzeko.

Laugarren helburuak rolen banaketari egiten dio erreferentzia, bai etxean zein lan eremuan. Honi buruz, hipotesi hau hartu da ardatz:

3. Gure eskoletan irakurtzen den Haur eta Gazte literaturan, etxeko lanen eta zaintza familiarren banaketa parekideagoa da.

3.4. Corpusa

Corpusa hautatzerako orduan, lanaren helburuak eta hipotesiak zeintzuk diren kontuan hartu dira. Hori dela eta, corpusa hiru irizpideren inguruan erabaki da:

- Adina: 5-8 urte bitartean dituzten umeentzat zuzendutako liburuak hautatu dira. Adin honekin umeak eskolara joaten dira eta euren adinakoak diren beste haurrekin bizi dira. Momentu horretan, sozializazioaren lehenengo urratsak hasten dira ematen. Sozializazio hori, modu egozentriko batean ematen da hasierako momentuetan “hau nirea da”, baina denborarekin ulertuko du besteekin bizikidetzan dagoela. Umea eskolan sartzen denean, bere funtzio kognitibo, sozial eta afektiboak hasten da garatzen. Esan daiteke arrazoiketa ere poliki-poliki hasiko direla garatzen. (Asociación Mundial de Educadores Infantiles, n.d.). Horretaz gain, pentsamendu fantastikoa dute oraindik, eta horregatik, ipuinetan ematen diren ereduak erraz sinesten dituzte.
- Hizkuntza: euskaraz argitaratuta dauden liburuak erabili dira (nahiz eta hauek itzulpenak izan). Izan ere, umeek gaur egun irakurtzen dituzten liburuak aztertu nahi izan da, eta horretarako, eskola publikoetan 2019/2020 ikasturtean erabiltzen dituzten liburuetara hurbiltzea izan da helburua. Kontuan hartu da, beraz, gure hezkuntza sistema publikoak euskara hartzen duela ardatz.
- Erabilera: erabilerari dagokionez, bi guneren inguruan aukeratu da. Batetik, gaur egungo ikastetxe publikoetan erabiltzen diren liburuak hautatu dira. Horretarako, bi ikastetxeekin harremanetan jarri eta eurek erabiltzen dituzten liburuen zerrenda baliatu da. Bestetik, liburutegietan adin tarte horretarako zuzenduta dauden eta gehien mailegatzen diren liburuak hautatu dira.

Aipatutako irizpideak kontuan harturik, ondorengo orrietan Gradu Amaierako Lana aurrera eramateko corpusa aurkezten da:

Rontegi Ikastetxea:

Arratibel, Miren (1999). *Txanogorritxo*. Donostia: Ttarttalo.

De Dios, Olga (2016). *Munstro Arrosa*. Berriozar (Nafarroa): Denonartean.

Disney, Walt (1998). *Oihaneko Liburua*. Bilbo: Aizkorri.

Erlich, Bernardo (2008). *Grvs, nire laguna*. Bilbo: A Fortiori.

Herrikoia (2003). *Jon Zikinaren anaia*. Donostia: Erein.

Meroto, Tinam (2017). *Sorgina Kirris Karras*. Pontevedra; Tafalla: OQO Txalaparta.

Murua, Mixel (2009). *Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Ane Pirata*. Donostia: Elkarlanean.

Pinto, Susana (2007). *Betizu, Emeuk oroimena galdu du*. Banaka multimedia.

Rodriguez, Txani (2013). *Artzaina izan nahi dut, eta zer?*. Donostia: Elkar.

Ungerer, Tomi (2001). *Hiru bidelapurrak*. Pontevedra: Kalandraka.

Mukusuluba Ikastetxea:

Abeyá, Elisabet (2000). *Eta handia egiten naizenean zer?*. Donostia: Elkarlanean.

Aguilar, Luisa (2011). *Tximeleta – belarriak*. Pontevedra: Kalandraka.

Córdoba, Isabel (1993). *Ada ez da inoiz beldurtzen*. Arrigorriaga: SM.

Herrikoia (2009). *Zapatari Txiki*. Donostia: Elkarlanean.

Sardans, Annabel (2006). *Eskutitza*. Donostia: Ttarttalo.

Schimiell, Lawrence (2002). *Baratzeko misterioa*. Pontevedra: Kalandraka.

Sendak, Maurice (2000). *Piztiak bizi diren lekuan*. Pontevedra: Kalandraka.

Wolf, Ferida (2008). *Ipuinen haria*. Donostia: Ttarttalo.

Zubizarreta, Patxi (2005). *Estatua bat eta bi artista*. Donostia: Erein.

Zubizarreta, Patxi (2017). *Usoa, hegan etorritako neskatoa*. Donostia: Erein.

Liburutebietan gehien mailegatu diren liburuak:

Alberdi, Uxue (2012). *Marizikina naiz, eta zer?*. Donostia: Elkarlanean.

Arnal, Txabi (2003). *Ilargi – adarra*. Pontevedra: Kalandraka.

Arratibel, Joxe (2000). *Sorgina eta emakume ederra*. Donostia: Erein.

Arrieta, Yolanda (2007). *Oinutsik jauregian*. Bilbo: Ibaizabal.

Atxaga, Bernardo (1988). *Asto bat hypodromoan*. Donostia: Erein.

Bilbao, Leire (2008). *Markel gelazikin*. Donostia: Elkarlanean.

Company, Mercè (1999). *Lehoiaren hortzak*. Bilbo: Bruño.

Gaudes, Belén (2014). *Bazen bitan, Edurnezuri*. Madrid: Cuatro Tuercas.

Gaudes, Belén (2014). *Bazen bitan, Hansel eta Gretel*. Madrid: Cuatro Tuercas.

Gosciny, René (1990). *Obelix eta konpainia*. Donostia: Elkar.

Herrikoia (1998). *Barbantxo*. Donostia: Elkarlanean.

Igerabide, Juan Kruz (2001). *Daratulua*. Bilbo: Desclée Brouwer.

Igerabide, Juan Kruz (2004). *Jonasek arazo potolo bat du*. Bilbo: Aizkorri.

Igerabide, Juan Kruz (2007). *Olentzeroren malutak*. Donostia: Elkar.

Landa, Mariasun (2000). *Amona, zure Iholdi*. Donostia: Erein.

María Gonzalez, Xosé (2001). *Hamaika andere ausart*. Pontevedra: Kalandraka.

Meinderts, Koos (2007). *Itsasargia*. Donostia: Erein.

Monedero, Sergio (2008). *Tartaloren leizea*. Bilbo: Delirium.

Vincent, Gabrielle (2018). *Ernesto eta Zelestina eguberriak etxean*. Pontevedra: Kalandraka.

Zubizarreta, Patxi (1998). *Joanaren erregin aulkia*. Bilbo: Aizkorri.

3.5. Tresnak

Corpusa zehaztu ondoren, tresna gisa *fitxa* bat sortu da, zeinarekin liburu guztiak aztertuko diren. Fitxa hau osatzeko, gai honen inguruan aurretik argitara eman den ondorengo doktore tesia oinarri hartu da: Eneko Fernandez (2017)

Ondoren aurkeztuko den fitxa osatzeko, kontuan hartu dira lan honen helburuak eta hipotesia. Modu honetan, ahalik eta informazio gehien atera nahi izan da.

Erabili den tresna hau atalka antolatu da eta lotura zuzena zehaztu da lortu nahi diren emaitza datuekin.

- **Lehenengo atalean**, liburuaren fitxa bibliografikoa zehaztu da: liburuaren izenburua, egilea, irudiak eta liburua argitaratutako urtea.
- **Bigarren atala**, aldiz, protagonista nagusiaren sexua zehazteko erabili da, eta baita pertsonai bakarra edota taldean agertzen den. Horretaz gain, agertzen diren animalia zein objektuak zehaztu gabeko sexua duten ere jakin nahi da.

1. Taula

Protagonista nagusia

| | Bakarra | Talde bat |
|------------------|----------|-----------|
| Mutila / gizona | | |
| Neska / emakumea | | |
| Neska – mutila | | |
| | Animalia | Objektua |
| Zehaztugabea | | |

Atal honetan ere bestelako protagonistei erreparatuko zaie, pertsonaia nagusiak aztertu izan diren modu berean.

2. Taula

Bestelako protagonistak

| | Bakarra | Talde bat |
|------------------|----------|-----------|
| Mutila / gizona | | |
| Neska / emakumea | | |
| Neska – mutila | | |
| | Animalia | Objektua |
| Zehaztugabea | | |

- **Hirugarren atalari dagokionez**, pertsonaien ezaugarriak aztertuko dira. Narratzaileak pertsonaien inguruan emandako informazioari esker. Horrela, deskribapen fisiko eta psikoebolutoetan jarriko da arreta. Horretaz gain, pertsonaien trebetasuna aztertuko dira, bai neskengan zein mutilengan ematen direnak.

3. Taula

Deskribapenak

| | Neska | Mutila |
|----------------------------------|-------|--------|
| Ezaugarri fisikoak | | |
| indartsuak | | |
| ahulak | | |
| ederrak | | |
| itsusiak | | |
| Ezaugarri Psikologikoak (Izaera) | | |
| aktiboak | | |
| pasiboak | | |
| menderatzaileak | | |
| mantsoak (men egitea) | | |
| lehiakorrak | | |
| alferrak | | |
| sentikorrak | | |
| ausartak | | |
| zitalak | | |
| lotsatiak | | |
| ahulak | | |

| | | |
|----------------------------|--|--|
| sortzaileak/abenturazaleak | | |
| ameslariak | | |
| heroiak | | |
| jakintsuak | | |
| Trebetasunak / gaitasunak | | |

Gero, istorioan gertatzen diren ekintzak kontuan hartuta, sexu bakoitzean ematen diren jokabideak aztertuko dira, euren nortasuna nolakoa den ondorioztatzeko.

4. Taula

Sexu bakoitzaren nortasuna

| | Neska | Mutila |
|-------------------------------------|-------|--------|
| Heroia (salbatzaile / konpontzaile) | | |
| Arazoak gainditzen ditu | | |
| Menpekotasuna | | |
| Autonomia | | |
| Erabakiak hartzen ditu | | |
| Indarkeriaren erabilera | | |

- **Laugarren atalean**, pertsonaien espazioa aztertuko da. Sexuari dagokionean, etxeko ardurak eta lanbideak behatuko dira eta sexu bakoitza gizartearen zein lekurekin uztartzen den jakingo da.

5. Taula

Etxeko ardurak, lanbidea, espazioa

| | Neska | Mutila |
|---|-------|--------|
| Etxeko lanak | | |
| Zaintza familiarrak | | |
| Lan ordainduak | | |
| Lan kargu botereduna | | |
| Etxe kanpoan, esfera publikoa, gizartea | | |
| Etxe barruan, esfera pribatua | | |
| Ospea ematen duena | | |

| | | |
|-------------------|--|--|
| Diru asko ematea | | |
| Diru gutxi ematea | | |

6. Taula

Nor ageri da etxean?

| <i>Aita</i> | <i>Ama</i> | <i>Biak</i> | <i>Semea</i> | <i>Alaba</i> | <i>Beste</i> | <i>Familiarrak</i> |
|-------------|------------|-------------|--------------|--------------|--------------|--------------------|
| | | | | | | |

Lanbideak

- Neskak / emakumeak:
- Mutilak / gizonak:

3.6. Metodoa

Lan hau burutzeko, lehenik eta behin, jarraitu beharreko urratsak diseinatu dira. Modu honetan, horrela antolatu da:

Hasteko, lanaren helburu orokorra finkatu da, eta honekin batera, bestelako helburuak ere. Horrela, jaso beharreko emaitzak zeintzuk izan behar diren hasieratik jakin izan da. Helburuetatik abiatuta, hipotesiak formulatu dira; hauek baieztatu edo ezeztatzeko fitxa bat sortu behar izan da. Horretaz gain, aukeratutako gaiaren inguruan idatzi diren ikerketa, artikulu, tesi zein bestelako dokumentuen irakurketa burutu da.

Jarraitzeko, corpusaren hautaketa egin da. Corpus honek, bi norabide izan ditu. Batetik, gaur egun ikastetxe publikoetan irakurtzen diren liburuen hautua, eta bestetik, liburutegietan gehien mailegatzen diren liburuena. Lehenengoari dagokionez, bi ikastetxe publikoetako irakasleekin harremanetan jarrita lortu da, 5 eta 8 urteren bitartean dauden umeei eskaintzen zaien liburuen zerrenda baten bidez. Bigarrena, Udal Liburutegian dauden langileen laguntzaz, eta liburutegiaren sarean gehien mailegatzen diren datuak baliatuz, aukeratu izan dira. Orotara, hogeita hamar liburutako corpora osatuz. Behin helburuak, hipotesiak, fitxa eta corpora ezarri direnean, liburuen azterketa egin da. Liburuak banan-banan irakurri dira eta fitxan datuak jaso dira.

Azkenik, fitxetan idatzitako datuak aztertu dira eta hipotesiak kontuan hartuz, emaitzak idatzi dira. Horrela, hipotesi bakoitza baieztatu edo ezeztatu da. Emaitzak lortu ondoren, ondorioak atera dira.

4. EMAITZAK

Atal honetan lanaren emaitzak aurkezten dira. Datu hauek ezagutarazteko hiru atal erabiliko dira; betiere gogoan hartuz, ikerketa honen ardatza Haur eta Gazte literatura *genero ikuspegitik* aztertzea dela. Ondoren, hiru atal hauek aurkeztu eta garatuko dira:

1. **Pertsonaien sexuari dagozkion emaitzak:** nesken eta mutilen presentzia kopurua zein den ezagutzeko bi adierazle erabili dira: alde batetik, *protagonista nagusiaren* presentziari erreparatu zaio (protagonista nagusia neska edo mutila den) eta bestetik, liburuko *bestelako pertsonaiei* (neskak edota mutilak agertzen diren). Hau aztertzeko hurrengo hipotesia kontuan hartu da:


Gaur egun eskoletan erabiltzen den Haur eta Gazte literaturan, emakumeen irudi protagonistaren areagotzea islatzen da; gizonen irudi protagonistarekin parekatzera heldu arte.

Lan honen lehenengo helburuari erreparatuz, egungo eskoletan erabiltzen den Haur eta Gazte literaturan, emakumeen irudia gora egin duen ala ez zehazteko, ondorengo azterketa bideratu da. Erabilitako corpusean agertzen diren pertsonaien sexua aztertu da, horrela neskak, mutilak, talde misto edo zehaztugabeko pertsonaiak agertzen diren jakin ahal izan da eta hipotesia betetzen den edo ez baieztatu.



1. Irudia. Protagonista. Ane Pirata liburutik hartuta


Ondorengo grafikoan, corpuseko liburuetan **protagonista nagusia** neska/emakumea edo mutila/gizona den ikus daiteke.



2. Irudia. Grafikoa protagonista nagusia

Bildutako datuen arabera, nesken eta mutilen kopurua antzekoa dela argi ikus daiteke, kasik kopuru berdinerara heldu arte: neska protagonista %35a izanik eta mutil protagonista %37a. Aipatzekoa da, Haur eta Gazte literaturaz ari garenez, ohikoa dela zehaztu gabeko pertsonaiak azaltzea, eta haatik, genero jakin bat ez egokitzea. Adibidez: munstroak, objektuak, animaliak... talde honi %21a egokitzen zaio. Horretaz gain, neska-mutil protagonistak diren talde mistoak aipatu behar dira, nahiz eta %7a soilik izan, liburu hauetan maiz agertu ohi dira.

Pertsonaien sexuaren presentziarekin jarraituz, ondorengo grafikoan, corpuseko liburuetan **bestelako pertsonaiak** neska/emakumea, mutila/gizona den ikus daiteke.



3. Irudia. Grafikoa bestelako protagonistak

Oraingo honetan, jasotako informazioak adierazten du neska/emakumeen eta mutil/gizonen presentzia orekatua dela. Hala ere, 1. grafikoan ez bezala, nesken presentzia bestelako protagonista gisa, pittin bat altuagoa da (%31a) mutilena baino (%29a). Kasu honetan ere, presentziak ez du berdintasunik bermatzen eta ez ditu eredu berrien transmisiorik ziurtatzen. Esateko dago, neska-mutil bestelako protagonista taldea misto bezala, indibidualei hurbiltzen zaiela oso.

2. **Pertsonaia protagonistei antzematen zaien ezaugarri sexisten emaitzak**: atal honetan, adierazitako bigarren helburua kontuan hartzen da, eskoletan erabiltzen den Haur eta Gazte literaturan, pertsonaia protagonista horiengan antzematen diren ezaugarri sexistak identifikatuz. Horretarako, hainbat adierazle baliatuta, protagonistei estereotipo sexista gehiago edo gutxiago egokitzen zaien aztertu da. Beraz, hipotesi nagusiari beste hiru azpi-hipotesi erantsi dizkio erantzunak bilatzeko nahian. Honako hauek dira:

Haur eta Gazte literaturan emakumeen irudi protagonista areagotu den arren, pertsonaia horietan sexismo kutsu bat existitzen da oraindik:

- Gaur egun eskoletan irakurtzen diren liburuetan *ezaugarri fisikoekin* lotzen diren deskribapen sexisten ikuspuntua jarraitzen da ematen.
- Gaur egun eskoletan irakurtzen diren liburuetan, *ezaugarri psikologikoen* deskribapenetan hain zuzen, ezaugarri sexisten presentzia jarraitzen da ematen.
- Gaitasun/trebetasunen deskribapenak ematen direnean ezberdintasunak jarraituko dira nesken eta mutilen arteko abilezian banatzerakoan.

Lehenengoan azpi-hipotesian, **ezaugarri fisikoak** zehazten dira: honetarako sexu bakoitzari suposatzen zaizkion ezaugarri ohikoenak azaltzen dira; hots, neska eta mutilak *indartsu, ahula, ederra* edota *itsusiak* diren. Izan ere, gaur egungo eskoletan erabiltzen diren liburuetan, deskribapen sexistak dituzten irakurketak saihesten direla espero da; ohiko den mutil indartsu eta neska ederrak albo batean uztea, alegia.

7. Taula

Ezaugarri fisikoak

| | MAIZTASUNA | |
|--------------------|------------|--------|
| | Neska | Mutila |
| EZAUGARRI FISIKOAK | | |
| indartsuak | 1 | 9 |
| ahulak | 2 | 1 |
| ederrak | 9 | 0 |
| itsusiak | 3 | 1 |

Datuen bilketa egin ondoren, nabari da oso zeintzuk diren gehien azpimarratzen diren tasunak sexu bakoitzeko. Bederatzi liburutan, esaterako, neskaren *edertasuna* goraiatzen da. Gizonezkoengan, aldiz, pertsonaiaren itxurari ez zaio erreparatzen. Alabaina, gizon *indartsua* bederatzi liburutan ikus daiteke eta soilik bakar batean emakumeengan. Aipatzekoa da, oso gutxitan ezartzen zaiela *ahultasuna*, gizon zein emakumeei (baten eta bitan urrenez urren) eta *itsustasuna*, gizonei behin eta emakumeei hirutan.

